

# DARDARA TXOSTENA

---

BERRI TXARRAK MUSIKA TALDEAREN IKUSI ARTE TOUR AGUR-BIRAN ZEHAR GRABATUTAKO  
FILMA



2021 SAILE OFIZIALA  
**PUNTO DE VISTA**



# DARDARA

MARINA LAMEIROK BERRI TXARRAKen azken biran filmatutako pelikula dokumentala

GIDOIA ETA ZUZENDARITZA **MARINA LAMEIRO**, PRODUKZIO ZUZENDARITZA **ITZIAR GARCÍA ZUBIRI**

EKOIZLE ERAGILEAK **PABLO IRABURU, IGOR OTXOA**, ARGAZKI ZUZENDARITZA **MARINA LAMEIRO**, ZUZENEKO SOINUA **MIGUEL GARCÍA IRABURU**

PRODUKZIOA FILMAZIOAN **GARAZI ERBURU, ITSASO ETXEBERRIA, OHIANE IRIARTE, ITZIAR GARCÍA ZUBIRI**, KOMITZERTUETAKO SOINUA ETA NAHASKETAK **MIKEL SANTOS**

BIGARREN KAMERA ETA SOINU UNITATEA **MADDI BARBER, MIGUELTXO MOLINA, ALVARO GARCÍA ECHEVERRÍA, EYMARO UBERETAGOENA**

EDIZIOA **DIANA TOUCEDO**, POSTPRODUKZIO KOORDINATZAILEA **NURIA PÉREZ MARTÍNEZ**, POSTPRODUKZIOA ETA KOLOREA **MIGUEL GARCÍA IRABURU**

DISEINU GRAFIKOA **ALVARO GARCÍA ECHEVERRÍA**, EDIZIOA ETA SOINU NAHASKETA **IOSU GONZALEZ (NOISESTUDIOA)**

EKOIZTEN DUTE **ARENA COMUNICACIÓN** ETA **TXALAPART** ELKARLANEAN **ONLY IN DREAMS**

EITB MEDIA -REM PARTE HARTZEAREKIN. ATERA FILMS -EK BANATUTA

[WWW.DARDARA.FILMA.COM](http://WWW.DARDARA.FILMA.COM)



# SINOPSISIA

---

25 urte taula gainean eman ondoren, eta taldearen unerik gorenean, Berri Txarrak-ek geldialdi mugagabea iragarri zuen, ibilbide oparo bati etena jarriz. Geratu aurretik, baina, azken bira bat egiteko nahia adierazi zuten, mundu osoko zaleak merezi bezala eskertu eta agurtzeko. Bidaia horretan Marina Lameiroren kamera izango zuten bidelagun, birak zaleengan sortutako dardara dokumental batean jasotzeko asmoz. Zinemagileak jarraitzaileen istorioekin irudi koral bat eraikiko du, etxetik hasi eta hainbat herrialdetako zaleen bizitza txatalak tartekatuz: Mexiko, Japonia, Alemania, Estatu Batuak... denek ere pasio bera partekatuko dute: Berri Txarrak rock taldearen musika.

Hirukoaren kantuek utzitako lorratza ikusi ahal izango dugu pelikulan zehar; taldearen azken urratsen lekuko izanen gara; estilo, hizkuntza eta hainbat belaunaldi ezberdinen langak gainditu eta harago doan fenomeno baten unibertsaltasuna agertuko zaigu pantailan.

Lameirok Gorka Urbizuren letra eta hausnarketen gainean ardaztu du *Dardara* dokumentala. BTX-en kantuen sortzaile nagusiak idazteke dagoen etorkizun baten bertigoari –dardarari- aurre egin beharko dio orain. Orobat, musikaren indarrari eta pasioari buruzko pelikula ere bada hau –*exijitza zilegi den gutxieneko hori*. Izan ere, horixe izan dute iparrorratz hasiera-hasieratik azken bira arte. Pasio horri esker lortu du Berri Txarrak-ek milaka lagunen bizitzaren parte garrantzitsu izatea.



# FILMAZIOA ETA EKOIZPENA

---

Marina Lameirok 2019an parte hartu zuen Berri Txarraken Ikusi Arte mundu biran. Modu honetan Rock taldeak, bere ibilbidearen une gorenean, amaiera ematen zion 25 urteko proiektuari.

Marina Lameiorenak dira gidotia, zuzendaritza eta argazkia. Ekoizpenaren diseinua Itziar García Zubirik sinatzen du. Muntatzailea, Diana Toucedok. Ekoizpen exekutiboa Pablo Iraburu eta Igor Otxoaren ardurapekoa izan da. Nuria Pérez Martínezek koordinatu du Miguel García Irabururen posproduktzioa. Álvaro García Echeverría arduratu da diseinu grafikoaz. Iosu Gonzálezek soinua editatu eta nahastu du. Mikel Santosek taldearen zuzenekoaren soinuen nahasketak egin ditu.

*Dardara* Arena Comunicación eta Txalap.art-en ekoizpena da, Only in Dreams-ekin lankidetzan. EITB MEDIA partaide gisa ageri da. Filmak Nafarroako Gobernuaren Generazinemaren, Caja Navarra Fundazioaren eta "La Caixa" Fundazioaren Innova-Cultural programaren eta Etxepare Institutuaren laguntzak jaso ditu.

Trailerra 2020ko azaroaren 29an estreinatu zen, Gaztea Sariak galan, EITBren Euskadi Gaztea irratia 30. urteurrena zela eta. Bertan, Berri Txarrak taldeak Urteko Fenomeno Saria jaso zuen. 2020ko abenduaren 29an, Iruñeko Santas Pascuas jaialdian, Marina Lameirok showcase bat garatu zuen, non bere bigarren film luzearen sormen prozesuaren xehetasunak partekatu zituen.

Filmaren mundu mailako estreinaldia 2021eko martxoaren 15ean izango da, Punto de Vista Jaialdiaren Sail Ofizialaren barne. Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren 15. edizioa 2021eko martxoaren 15etik 20ra bitarte ospatuko da. *Dardara* Inaugurazio-filma izango da, 2018an Lameirok bere opera prima *Young & Beautiful* estreinatu eta Publikoaren Sari Berezia jaso zuen jaialdian.

Atera Films arduratuko da banaketaz. *Dardara* 2021eko martxoaren estreinatuko da zinema-aretoetan.

# IKUSI ARTE BIRA 2019

---

*Dardara* mundu osoko jarraitzaileei ahotsa emateko, eskertzeko eta aurpegia jartzeko ahalegin bat da: Mexiko, Japonia, Alemania... Oroitzapenerako agur-bira baten mugari kulturalak alde batera utzi gabe: euskarazko talde batek inoiz egin duen kontzerturik jendetsuena (20.000 lagunetik gora Kobetamendin); Madrilgo WiZink (Kirol Jauregia) osoari aurre egin dion lehen musika talde euskalduna; Nafarroa Arena-ko hitzordu bikoitz zirrargarria, zeinetarako sarrerak minutu gutxitan agortu ziren... "Pasioa da hemen exijitzea zilegi den gutxieneko hori" dio BTXen abesti batek... Gutxitan *leit motiv* batek zuhertasun hau izan du, iraupen-korrikalari baten bakardadea bezain erreala.



# **GORKA URBIZUren OHARRAK**

---

BTX bere lekua egiteko borrokatu duen beste talde underground bat izan da. Hori askorentzat berezi egiten gintuen zerbait da, hemen talde “handi” bat izatearen erosotasuna eta kanpora izerdia egitera irteteko gosea izatearen arteko kontraste hori (ez dute askok egiten). Uste dut filmak BTXen izaera hori ere biltzen duela. Nantes gara, baita Kobetamendi ere.

Horrez gain, sortzaileak “etxetik alde egiteko” duen beharra, bere burua zalantzan jartzeko eta urteetan landutako estatusa lumatzeko behar hori jasotzen du, artista gisa hazten jarraitzeko. Erabaki horrek sor ditzakeen zalantzak eta ondorio guztiak, unearen aldakortasuna eta abestiek denboran irauteko eta arrastoa uzteko duten ahalmenaren arteko kontrastea. Garrantzitsua den zerbaiten amaiera etapa berri baten hasiera gisa.

Haria eten aurretik ihes egiten duenaren nolabaiteko beldurrak.

Intimotik kolektiboaraino doazen argi-itzalak.

# **ZUZENDARIren OHARRAK**

---

Film hau egin aurretik ez nintzen inoiz rock kontzertu batera jeandeari erreparatzera joan. Lehen grabaketa egunetik, nire zeregina lehen ilarara begiratzea eta jendeak bi orduko kontzertuan nola erreakzionatzen zuen ikustea izan zen. Oholtza gainean gertatzen ari zena baino ikuskizun hobea kausitu nuen. Pertsona horiek nola gozatzen eta hunkitzen ziren ikustea; une horretan presente zeudela nabaritzea eta sentitzea pelikula hau egitearen gauzarik hoberenetarikoa izan da.

Bere ibilbideko unerik gozoenean gelditzea erabaki duen sortzaile batengana hurbildu nahi nuen. Sortzen jarraitzeko egiten du, horretarako bere bizitzako taldea bihurtu dena alboratu behar badu ere. Eta aldi berean, musikak jendea hunkitzeko daukan gaitasun unibertsala erakutsi nahi izan dut. Berdion dio adinak, berdi dio jatorriak. Bost axola baldintzak, hizkuntza, kontzertuan zenbat jende dagoen. Hain bereak eta aldi berean hain unibertsalak diren talde honen izaera tranbertsala jaso nahi nituen.

Izenburuak film osoan zehar sumatzen den pasioari egiten dio erreferentzia, ageri agerian proiektuaren gai nagusia ez bada ere. Zaila da pasiotik ihes egitea, istorio honetan egin eta erretratatu dugun (ia) guztiaren parte izan denean. Baina badaude pasioari atxikitako beste gai batzuk, hala nola emozioa, sorkuntza... filma egituratu dutenak.

# ZUZENDARIA BIO

---

Marina Lameiro (Iruñea, 1986) Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da Juan Carlos Erregea Unibertsitatean (2004-2009). Hainbat dokumentalen produktorea, errealizadorea eta gidolaria da, horien artean nabarmentzekoa *Young & Beautiful*. Film luze horrengatik 2018an Punto de Vista jaialdian Publikoaren Sari Berezia, Alcances jaialdian epaimahaiaren aipamen berezia, Númax saria Margenes jaialdian, Rizoma saria izen bereko zinemaldian, Latexos saria Novos Cinemas zinemaldian, D`A Film Festivalen epaimahaiaren aipamen berezia edota ECAM saria jaso ditu. Horrez gain, Tania Hernández Velasco artista mexikarrarekin duen film-korrespondentziatik abiatutako *Volando pero no* film laburra zuzendu zuen. Film labur horrengatik Nafarroako Arte Gaztearen Topaketetako ikus-entzunezko sorkuntzako bigarren saria jaso zuen 2016. urtean. *300 Nassau* (2016) filmarekin Nafarroako Foru Arte Jaialdiko finalista izan zen eta Fordhameko zein New Yorkeko unibertsitateetan eta Bartzelonako L`Alternativa jaialdian erakutsi ahal izan zuen. Azken film labur hau 2014ko irailetik 2015eko ekainera bitartean sortu zuen, New Yorken, UnionDocs-eko artista egoiliar gisa, Collaborative Studioko (CoLab) kide zelarik.

## Filmografia

*Young & Beautiful* (2018, Espainia). Film luze dokumentala. Ekoizle eta zuzendari.

*300 Nassau* (2016, Estatu Batuak). Film labur dokumentala. Ekoizle eta zuzendari.

Film truke edo korrespondentzia Tania Hernándezekin (2014 / martxan). Ekoizle eta zuzendari.

# BERRI TXARRAK

---

BERRI TXARRAK Lekunberrin sortu zen 1994an. Ordutik bederatzi disko, bilduma-lan bat eta dokumental bat argitaratuak ditu, ale bakoitzean jarrera eta garapen geldiezina erakutsiaz. Izaera honek zailduta, taldea gauza izan da bi hamarkadatan zehar bere entzulego zabala ezustean harrapatu eta etengabe bide berriak irekitzeko, erosotasun artistikotik ihesi. Mila kontzertutik gorako eskarmentua galtzarbean, hirukoak nazioartean leku bat egitea lortu du euskara hutsean.

Musikari dagokionez, zaila da Berri Txarrak estilo bakar batean sailkatzea, jakinmin musikal ase ezin batek bultzatuta gauza izan baitira denboran zehar euren rocka modu harrigarrian aberasteko, edozein etiketa txiki utzi arte. Taldearen ezaugarri behinena da, halere, melodia gogoangarrietarako duten abilezia berezkoa, musika edozeren gainetik hunkitzea dela itsuki sinestuta. Ezin aipatu gabe utzi haren letrak, hitzen bidezko irudien bidez gogoeta eta emozio sakonak sorrarazteko abilezia erakusten duten aldetik. Beharbada horrexegatik, jarrera irekiko talde aktibo honek **Steve Albini**, **Ross Robinson**, **Bill Stevenson**, **Jason Livermore** edo **Ed Rose**-en mundu mailako ekoizleekin lan egin izan du. Ahaztu gabe Ricky Falkner, Karlos Osinaga 'Txap', Kaki Arkarazo edo Santi García-ren alboan egindako grabaketak. Agian horregatik euren diskoetan **Tim McIlrath** (Rise Against) edo **Matt Sharp** (The Rentals, Weezer) bezalako musikarien kolaborazioak topa daude.

BERRI TXARRAKek bost kontinenteetan jo du; besteak beste Europa eta Hegoamerikan bira osoak egin ditu Rise Against taldearekin batera, Deftones edo Sick Of It All taldeentzako atarikoak egin... musika jaialdi erraldoietan aritu (Hellfest -Frantzia-, Fuji Rock -Japonia-, South By Southwest -USA-, Canadian Music Fest -Kanada-, Wilwarin -Alemania-, Resurrection -Galiza-, Viña Rock, Sonorama Ribera -Espainia-, EHZ, Azkena Rock Festival, Bilbao BBK Live -EH-... Erresuma Batuan, Estatu Batuetan, Australian eta Asian barna egindako hainbat bira ahaztu gabe. Taldeak jendea biltzeko izan duen gaitasuna ere azpimarratzekoa da, gaurdaino inork ez baitu antzekorik berdindu: Ikusi Arte biraren baitan, 20.000 lagun baino gehiago bildu zituen Bilboko Kobamendin, Madrileko WiZink Centerren lehen aldiz jo eta 7.000 pertsona baino gehiago biltzea lortu duen lehen talde euskalduna da, eta birako azken bi emanaldietarako 20.000 sarrerak 24 ordutan saldu zituen.



Taldeak 2019an Ikusi Arte Tour agur-bira egin zuen, ostean geldialdi mugagabe bati hasiera emanez.





# FITXA TEKNIKOA

---

**Zuzendaritza:** Marina Lameiro

**Gidoia:** Marina Lameiro

**Argazki zuzendaritza:** Marina Lameiro

**Produkzio zuzendaritza:** Itziar García Zubiri

**Ekoizle eragileak:** Pablo Iraburu, Igor Otxoa

**Musika:** Berri Txarrak

**Edizioa:** Diana Toucedo

**Postprodukzioa:** Nuria Pérez Martínez, Miguel García Iraburu

**Diseinu grafikoa:** Álvaro García Echeverría

**Zuzeneko soinua:** Miguel García Iraburu

**Soinu nahasketa:** Iosu González

# DATU TEKNIKOAK

---

**Genero:** filma luze dokumentala

**Iraupena:** 97'

**Grabaketa formatua:** 4K

**Proiektzio formatua:** DCP

**Ratio:** 1,9: 1

**Hizkuntzak:** euskera, gaztelera, ingelesa, japoniera, aleman

# EKOIZLEAK

---

Arena Comunicación Audiovisual zinema eta telebistarako dokumentalen ekoizle independentea da. Iruñean duten egoitzatik prozesu guztiaren ardura dute, ideiatik hasi eta masterrera. Haren film luzeak, *Nómadak Tx* (2006), *Pura Vida/The ridge* (2012), *Muro/Walls* (2015), *District Zero* (2015), *Oskara* (2015), *Elkarrekin-Together* (2017), *Hasta mañana, si Dios, todo* (2017), dozenaka herrialdetan filmatu dituzte, eta interes berezia dute irakurketa globala duten historia txiki eta gizatiarretan.

Txalap.art enpresak ikus-entzunezko produkzioak eta ikuskizun eszenikoak sustatzen eta garatzen ditu. Bere lan guztia tradizioan, etengabeko berrikuntzan eta kulturaren garapenean oinarritzen da. Sortu zenetik, bi arlotan lan egin du nagusiki: ikuskizunen eta musika-emanaldien ekoizpena, antolaketa eta kudeaketa, eta ikus-entzunezkoen eta zinemagintzaren ekoizpena. 2006. urteaz geroztik, Txalap.art ikus-entzunezko produkzioan eta sorkuntzan aritzen da, bereziki dokumental luzeetan. Arena eta Txalap.art-en lehen lankidetzara ere, musikala izan zen, *Nómadak TX*, eta orduetik bi produktorek bat egin dute hainbat proiektu ekoizteko. Berrito ere zinema eta musika uztartzen aritu dira film honetan.

# HEDABIDEEKIKO HARREMANAK

---

Gotzon Barandiaran Arteaga  
gotzonba@armiarma.eus  
656 796 209

Andrés García de la Riva  
escribe@nuevecartas.com  
672 376 162